

URKIOLA ARRIGARRI: (ETA VII) 1VIISIOLARIAK

Joseba Legartza'k argitaratu dauan "La sinfonia incompleta de Urkiola" liburu ederrean ainbat gauza arrigarri aurkitu doguz eta eurai buruz idazteko be gertu gengozan, baiña arlo au luzeegi doala uste izanez, beioako irakurleari azkenengo gai au. Aitatu daiguzan, orregaitiño, idazteko gertu geunkazan gai bitxiak: Iparragirre'k Urkiola'k abestu eban, Euskalerria'n lenengoz, Gernika'ko arbola, 1854n. urteko bagillaren 13n. egunean. Fika'ko semea zan Florentzio Isasi Gondra eta "Gorri" esaten eutsoen abadeak jokabide baragarria izan eban Urkiola'n eta gero Bakio'ko San Pelaio'ra joan zan. Balendin Berrio-Otxoa santuak sarritan mezea emon eban Urkiola'n eta bertako arduradun zan Tomas Goxentzia'ren lagun aundia zan. D. Tomas onek asko lagundu eutson gure santuaren amari eta 1886n. urteko bagillaren 9n. egunean igaro ziran Urkiola'tik santuaren gorpuzkiñak ospe-tsuki.

Baiña gai jakingarri guztiok alde batera itzita, esan daigun esan berrekoa dan zerbait: Urkiola'ko Santutegiarentzat, Bizka'i'ko Eleizbarrutiarentzat eta Euskalerrri osoarentzat guztiz gauza onuragarria izan dala Santutegiaren ardurea Eleizbarrutiko misiolariak artu izatea:

- Lenengo parroko izan zan Manuel Estomba'ren biotz ona ta euskazaletasuna gogoangarria izan ziran.
- Joseba Legartza'k eta bere lankideak egin dabena ordaindu-eziñezkoa da, beti gaiñean egon diralako.
- Don Biktor Garaigordobil Los Rios'ko Gotzaiña izandakoa, ortxe ikusi dogu bere laguntza apaltasunik aundianaz eskintzen.

- Egin diran lan batzuk gogoratu daiguzan: etxegintzalanak santutegia egokiro agertu eta apaintzeko, bai eleizea bera eta bai ingurua. Lan bat ondo kostata amaitu danerako beste bat agertu da. Parroki guztietan egiten diran lanak zabaltasun aundiagoaz, esaterako ezkontzak, bedeinkapenak, mezak, jaiak... Inguruko izadia zaindu, batez be dana garbi eukiteak emoten dauan lana. Santutegira urreratzen dan ainbeste maitale onartu banaka naiz taldeka, eta abar luze bat, liburuan ederto agertzen dana.

Oraintsu entzun dogu Misiolariak or jarraitu ala ez aztertze bideetan dabilzala. Nik zalantza barik esango neuskie jarraitzeko, baiña gauzak txarrera joan baiño lenago aztertu ta bideratu bear dira, 30 urte or egin ondoren D. Juan Mendibe'k bere burua ikusi eban egoeran ikusi baiño lenago. Eziña agertu ezkerro, beste bide batzuk billatu bear dira. Ez dot nik ikusten olako egoe-rarik, Eleizbarrutiko Misio-lanak jarraituko dau eta Urkiola lagungarri izango jako beti izan jakon lez, eta, alderantziz, misiolanak Urkiola'ri eutsiko dautso. Orretarako guztiok izan bear dogu Misio -zaleak eta Urkiola-zaleak.

Zoriona Eleizbarrutiko Misiolariai eta gure esker ona or lanean ekin eta gure federako, ebanjelitzatze-lanerako eta bizitza gozorako laguntzaille izan doguzan guztiai. Eta eskerrak liburu eder onen bidez ori ulertuazo dauskun Joseba Legentza'ri.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

It)

BILBAO
URB. A.
AYUNT. 11EN10
LAGUNTZAILLE

IPUIN-SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKARAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurtan be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:
Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAIN'TZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
Ipuinak asmatu-rikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabena ZER'en argitaratuko dira.

Saririk irabazten ez dabena be bai ipuiñaren barranean idazleak baimena emoten dauanean. Azillaren azkeneko EUSKARAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larrea-tegi, 14, 2.ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkeneko emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterrillean.

Sariak lau izango dira:

- 1.ª 50.000 pezeta
- 2.ª 40.000 pezeta.
- 3.ª 30.000 pezeta.
- 4.ª 20.000 pezeta.
- 5.ª 10.000 pezeta.

Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

Oharra: Epea abenduaren azkeneko-arte luzatzen da.

EUSKARAZALEAK